

artikulu nabarmenak artículos destacados



martxoa/marzo

Cuadernos de Pedagogía



PÉREZ, Manuel. Raquetas y parkour para la convivencia. En *Cuadernos pedagogía*, March 2014, nº 443, pp. 14-20
Las Pedroñeras institutuko irakasleen klaustroak, desinteresatuta, irakaskuntza berritzeko egitasmo bat martxan jarri du. Helburua izan da ikastetxean elkarbizitza hobetzea, baloreetan irakastea eta emaitza akademikoak hobetzen saiatzea. Egitasmoaren oinarria izan da aisialdiako jarduerak, kirol ekintzak (badminton, ping pong, parkour) eta taillerrak eskaintzea baloreak transmititzeko: elkartasuna, konpromisoa, ardura, ahalegina, batasuna eta konfiantza. Horrez gain, irakasleek hurkoa, balibiadeak eta instalazioak errespetatzen irakasten diete. Gazteak, gustoko dituzten jardueretara hurbiltzeak eragina du institutura joateko unean, bere portaerak eta emaitza akademikoak hobetu ditu eta eskolako absentismoa errotik atera du



AVILÉS MARTÍNEZ, José María. Bullying y Ciberbullying: apuntes para la elaboración de un Proyecto antibullying. En *Revista digital de la Asociación Convives*, nº 3, Abril 2014, pp 4-15
Artikulu honetan ciberbullyingaren eta bullyingaren ezaugarri komunak, haien arteko ezberdintasunak eta lehenengoaren berariazko ezaugarriak deskribatzen da. Arazoari aurre egiteko komenigarria da antibullying inguruaren proiektua gauzatzea. Hezkuntza erkidegoak erabakiak eta jarduerak hartu behar ditu ekintzak aurrera eramateko. Proiektua aurrera ateratzeko hainbat baldintza bete behar dira: orientazio-baldintzak (partaidetza, diziplina politikak, familien heziketa...) plangintza (dokumentu instituzionalak, funtzionamendu-egiturak, ebaluaketa, berariazko prestakuntza) eta kudeaketa (babes instituzionala, curriculum-ean integratzea, irakasleen eta ikasleen inplikazioa...)



HENN, Matt and Nick Foard. Social differentiation in Young people's political participation: the impact of social and educational factors on youth political engagement in Britain. In *Journal of youth studies*, vol. 17, nº 3-4, April-May 2014
Txosten honen emaitzen arabera gazteek badute konpromisoa prozesu politikoarekin, baina badakite aukera gutxi dutela bizitza politikokoan parte hartzeko modu eraginkorrean. Gure ikerketak adierazten du ez dagoela joera bateraturik politikari buruz, eta datuek esaten dute belaunaldi honek politikarekin duen konpromisoa konplexua dela eta bere fiabardurak dituela. Gizarte mailak eta hezkuntzak konpromiso politikoan eragin erabakitzailea duela ematen du, hala ere badago ezberdintasunik jatorri etnikoa eta generoa direla eta. Horrez gain egileek beste emaitza batzuk aztertu dituzte, zergatik 86 gazte ez dute botorik eman 2010eko hauteskunde orokorretan. Emaitza horiei esker ikertu dute ze faktorek izan duten eragina gazteen konpromisuan edota konpromisu eza politikan

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA